GUAIXE.EUS
PRES TOKIKOM

Jaki bilketan sakandarren erantzun ona

Sakanerria >> 9

Kirol asteburua: Sakanako Xake txapelketa bihar Arruazun eta Sakanako Herri Kirol Jardunaldia etzi Bakaikun

Kirolak >> 11

Sakanako kirolari onenek euren saria jasoko dute

>>11



Ikasleak atsedenaldian aterpean jolasten.

Iturmendiarrak ikastetxe berrian

>>5

Ikurren alde herri gisa erantzuteko eskatu dute

Altsasuko Zelai kaleko mastatik ikurrina kendu da, baina makina bat altsasuarrek euren etxeetan jarri dute ikurrina

>>7

Uharteko hirigintza plana parte hartzearen bidez berritzen hasi dira

>>5

Lizarragan ur araztegia 2017an egiteko bidea hasi dute

>>7

Euskal Ekitaldiek gaur segida

>>14

Erlojuak, denbora ondare direnean

>>3

Olaztiko jaiotza erakusketa bisita zain

>>8

Urtasun, Japoniara eta Zabalo, Norvegiara

>>12

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

Maddi
ZORIONAK!!! Biandu bada ere mila kilo zorion etxeko sorgintxoari!! Etxekuek.

June Perianez Higuero
Hemen zaude gure artean, June!! Oso zoriontsuak egin gaituzu!! Ongi etorri, potxola!! Muxu handi bat familia guztiaren partez.

Dulantz Lazkoz Amillano
Bi urte!! ZORIONAK zuri!! Happy birthday to you!! Igandean abestuko dugu. Mila muxu aitatxo eta amatxoren partez.

Erku
ZORIONAK zure 25. urtebetetzean!! Izeba izanda ere, zeinen ondo kontserbatzen zaren. Muxu bat familia guztiaren partez, bereziki, Mararen partez.

Ttiku
ZORIONAK Ttiku zure anaia Pello, Xabat eta lehengusu Izanen partez. Mila besarkada.

Oskia
Hiriberriko amina eta aittunaren partez, ZORIONAK!!!

Oskia
Eunateren partez, mila muxu eta ZORIONAK!!!

Oihane eta Saioa
ZORIONAK zure 13. urtebetetzean, pala jokalari galanta!! Eta zuri, Saioa, mila muxu potxola!! Amakutx.

Haitz Lazkoz Ginea
Dagoeneko 2 urte bete dituzu! Bi urte hauetan gure etxea alaitasunez eta pozez bete duzu. Asko maite zaitugu! ZORIONAK potxolo!

Haitz Lazkoz Ginea
ZORIONAK pottolin!! Ostiralean 2 urte bete zenituen. Seittu guai arte bezain alai ta zoriontsu. Oso ongi pasa genuen elkarrekin. Muxu pila bat familia guztien partez.

Ariane eta Amagoia
ZORIONAK bikote!! 18 urte dagoeneko!! Ondo pasa zuen urtebetetzean!! Muxu handi bat eta besarkada handi bat, elkar ikusten dugunean. Familiaren partez.

Txomin
ZORIONAK zuriiiiiii, zorionak betiiiiii!!! Aungi pasa egune, zu familiye.

abenduak 12-18

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Errimatuz, garena arrimatuz. Abenduaren 12an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Oskar Estanga.**

Urte akaberako entzunaldia. Abenduaren 16an, asteartean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko musika eskola.**

Ipuin kontalaria

Ipuinak mara-mara. Abenduaren 18an, ostegunean, 17:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Maider Galartza.**

Bideo emanaldiak

Euskal Herriko altxorren barrena. Abenduaren 12an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo Iratxo elkartean. **Arkaitz Astiazaran.**

Proiekzioak

Mendi lasterketak. Abenduaren 13an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Zinema

La pequeña Venecia. Abenduaren 12an, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Relatos salvajes. Abenduaren 12an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 14an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Campanilla, hadas y piratas. Abenduaren 14an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Malefica. Abenduaren 14an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Mendi irteerak

Etxauri, Sarbel, Ultzurrun. Abenduaren 14an, igandean, goizean Olaztitik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

Lokiz. Abenduaren 14an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak taldea.**

Bizikleta irteerak

Gasteizko urtegia. Abenduaren 14an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 50 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Trenak 150 urte Altsasun. Abenduaren 21era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Pintura detritus. Abenduaren 20ra arte Altsasuko Basoko Mari dendan.

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik

Jaiotzak. Ilbeltzaren 11ra arte, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta domeketan 12:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara Olatzagutian, Sakanako Belenzaleen Elkartearen egoitzan. 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Hitzaldiak

Burdinezko zalditik zilarrezko gezira. Abenduaren 18an, ostegunean, 19:00etan Iortia kultur gunea. **Hizlaria: Fernando Diez Gonzalez.**

Literatura

Orpoz orpo liburuaren aurkezpena. Abenduaren 17an, asteazkenean, 18:30ean Irurtzungo liburutegian. **Ernesto Prat Urzainki.**

Tailerrak

Makilaje. Abenduaren 13an eta 14an, larunbatean eta domekan, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Elkartasun afaria, Iñakiren alde. Abenduaren 13an, larunbatean, Unanun.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 12an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



ALDAKETA SOZIALA: Bihar, 17:30ean Iruñean eginen den manifestaziorako deia egin dute. Aldaketa sozialerako bestelako politika eredua aldarrikatuko dituzte.

ezkaatza >>

SAKANA

Yeregui elkartea, denboraren ondarearen zaindari

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Mendeak daramatzate kanpandorreetan bizitzen. Hasiera batean, haien orratzen erritmoak gazte zein zaharren bizi-martxa markatzen zuen, orkestra bateko zuzendariak bailiran. Haiei esker, herri bateko biztanle guztiak batera ibiltzea posible zen: noiz joan lanera, noiz itzuli etxera, noiz bazkaldu, noiz afaldu... Egun, oraindik ere hor goian ditugu, orduen joanaz berri ematen, baina dagoeneko gutxi dira begiak gora zuzendu eta haien balioaz jabetzen direnak. Bai, kanpandorreetako erloju monumentalez ari gara.

Gaur egun, egoera oso desberdinean dauden erlojuak topa ditzakegu: batzuk txukun zainduta dauden bitartean, beste batzuk herdoilez beterik daude. Leku askotan erlojuak ez dira ondare historikoaren parte bezala hartzen, eta kasu askotan bazter batean botata bukatzen dute, hautsa pilatzen. Egoera horretaz ohartuta, Euskal Herrian zenbait elkarte sortu dira, nolabait ere, erloju horien balio historikoa kontuan hartu eta hauek behar bezala zaintzeko.

Yeregui elkartea Xabier Alvarez Yereguik sortu du aurtengo apirilaren 6an. Dena den, elkartea duela gutxi sortu arren, bi urte baino gehiago daramatza Xabierrek bere emaztearekin batera erlojugintzaren inguruan bilketa egiten. "Duela sei urte inguru Zumaian bertako historia industrialaren inguruko bilketa talde bat sortu genuen. Horrela, duela pare bat urte, emazteak eta biok erlojugintzarekin gauza bera egin genezakeela pentsatu genuen. Ideiak asko motibatu ninduen, nire birraitona, Benito Yeregui, erlojugilea baitzen", hasi da kontatzen Xabier.

Xabier Alvarez eta Begoña Arruti Norte dendako Yeregui erlojuaren aurrean.

81 erlojuen bila

Benito Yereguik egindako 81 erloju horiek bilatzeari ekin zioten. Momentuz 41 aurkitu dituzte, eta gehiagoren bila jarraitzeko asmoa dute; ahalik eta erloju gehien topatu eta horiek berreskuratzeko moduak aurkitzeko. Izan ere, garbi dauka, beraiek erlojuak zaindu ezean, ez dituela beste inork zainduko. Euskal Herrian, orokorrean, ez dago erloju monumentalak ondare historikotzat hartzeko joerarik, eta Xabierren hitzetan, "horren ondorioz erloju monumentalak traste zahar batzuk izango balira bezala tratatzen dira".

Elkartearen kezka nagusia Euskal Herrian erloju monumentalekiko dagoen ezjakintasuna da. "Orain arte erloju ugari galdu dira jendearen ezjakintasunagatik, eta hemendik aurrera halakorik ez gertatzea nahiko genuke", azaldu du Xabierrek. Ez da erronka makala, kanpandorreetan dauden altxorrak behar bezala baloratzeko lehenik eta behin jendea kontzientziatu egin behar baita. Edonola ere, Xabierrek eta Yeregui elkarteak ekinean jarraituko dute, mendeetan zehar iraun duten historia zatitxo horien alde lan egiten.

Harremanetarako:
www.belenblen.hol.es/yeregui/

Osorik www.guaixe.eus

Yeregui erlojuak Sakanan

Altsasuko Norte erloju-dendako erakusleihoan aurki dezakegu horietako bat. Kasu berezia da, haraino iristeko egin zuen bidea oso bitxia izan baitzen. Egun batean erloju dendako jabea atarian zegoen zigarro bat erretzen, eta non ikusten duen ijito bat orgatila goraino beteta zuela. Orgatilan erloju zahar handi bat zegoen, eta berehala konturatu zen ez zela edonolakoa. Ijitoari erlojua erosteko pronto zegoela esan zion. Hark ezetz, jadanik txatarreroarekin hitzartuta omen zuen. Erloju-dendako jabeak ez zuen amore eman eta azkenean urrezko eraztun baten truke lortu zuen erlojua. Garbitu, desmuntatu, txukundu, eta geroztik erakusleihoan dauka jarrita.

Egiarretako erlojuari dagokionean, berau Jose Francisco Yereguik egin zuen 1804.urtean. Egun

Egiarretako erlojua, Yereguik egina.

geldirik dago, herdoil askorekin, baina Xabierren aburuz, oraindik berreskuratu daitekeen erloju bat da. Esferarik gabekoa da, hau da, kanpaia dauka bakarrik. Hasieran kanpandorretako erlojuak horrelakoak izaten ziren. Horrela, sorora joaten zirenek ez zuten esfera ikusten, baina kanpai hotsei esker zein ordutan bizi ziren jakiteko aukera zuten. Ihabarren ere izan zen Yeregui erloju bat, baina 1930 inguruan Moretz batengatik aldatu zuten.

Aipatutako bi erlojuez landa, duela gutxi **Arbizuko** elizan ere Yeregui erloju bat egon zitekeela esan zioten Alvarezi. Elkartekoak udaletxeko dokumentazioa aztertzen ari dira . Izan ere, 1831ko Yeregui erlojua izan daiteke, baina kanpoko aldean duen esferan 1750 urtea ageri da eta hura beste erloju batena izan litekeelako agiri azterketan segitzen dute. Alvarezek esan digunez, "erlojua geldirik dago baina garai hartakoa izateko, teknologia handia zuen". Hala ere, ikerketan gehiago sakondu behar dute. Jose Francisco 1750. urtean jaio zen. Edonola ere, udaletxeko agiri bati esker jakin ahal izan da Jose Francisco eta haren seme Jose Manuel Betelutik Arbizura joaten zirela erlojuaren zainketa egitera.

Arbizuko erloju zaharreko motorra.



Iturmendiko erloju zaharra.

Iturmendin dagoen erloju zaharra Iruñeko Joaquin Erviti etxeko Moretz da. Etxe horretakoa da ere **Urdiaingo** herriaren etxeko ezkaratzean dagoen erlojua.

Ziordian berritu berri dena ere Moretz erlojua da.

Urdiaingo udaletxeko erloju zaharra.

beleixeguaixe

Azaroko bazkide sarituak

1.- **Mª Pilar Rodriguez Astiz**
(Olatzagutia)

2.- **Juan Mª Aiestaran Igoa**
(Etxarri Aranatz)

3.- **Emilia Campos Castresana**
(Etxarri Aranatz)

4.- **Idoia Agirre Viana**
(Etxarri Aranatz)

ABENDUKO SARIAK:
1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea eta Magna Navarra Xotarako 2 sarrera.
2. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magna Navarra Xotarako 2 sarrera.
3. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magna Navarra Xotarako 2 sarrera.
4. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magna Navarra Xotarako 2 sarrera.

astekoa

Sakana duela **100 urte**

Lourdes Ganboa Gartziandia

Hasi baino lehen, mila esker, nire aurreko "Astekoa" irakurri eta animatu nauzuen lagun guztiei.

Gaurkoan, uda honetan buruan bueltaka izan dudan ideia komentatu nahi dut zuekin. Baliteke txorakeria iruditzea zuei, baina niretzat berezia izan da. Egun batean zera hasi nintzen pentsatzen: duela 100 urte Lakuntza herria guztiz desberdina zela gaurkoarekin alderatuta, batez ere, pertsonengan pentsatzen badugu. Hau da, orduko inor ez da orain bizi eta alderantziz, orain bizi garen inor ez geunden momentu hartan... Eta 100 urte ez da ezer, nire amari ezzaio hainbeste falta, adibidez.

Garai hartara begirada bat botatzea posible bagenu, ez genuke inor ezagutuko. Ziur aski asmatuko genuke, antzetara edo, zein etxetakoa zen bat baino gehiago, baina ez genuke ezagutuko. Ez dakit oso ondo nola azaldu pentsamendu honek ematen didan sentsazioa. Pertsona guztiak desberdinak, baina toki bera konpartituz: herria, inguruko mendiak, ibaia … Askotan basora joan eta zuhaitz baten kontra jartzen naizenean zera pentsatzen dut: "agian arbola honetan bertan noizbait nire aitona egon da, edo birraitona, atseden hartzen, ni nagoen bezalaxe…"

Eta noski, Sakana osoan berdin. Oraingo Sakana eta duela 100 urtetakoa guztiz desberdinak dira. Baina batez ere pertsona guztien aldaketa horrek ematen dit zirrara. Ez dakit, txorakeria agian, baina zerbait datorkit hortik orain-dik argi ikusten ez dudana.

barrutik kanpora

Ezinaren amorraziotik, lorpenaren poztasunera

Bizpairu urtez jarraian eskaera egina zion Arakilgo herritarrak Udalari: "kontribuzioaren kobrantza-jakinarazpena euskaraz jaso nahi dut". Ez da erraza izango, "kontribuzioaren jakinarazpena Nafarroako Gobernutik jasotzen dugu eta erdaraz bakarrik bidaltzen digu" erantzun zion beste hainbestetan Udalak.

Duela aste batzuk, ordea, 2014ko kontribuzio-zergari dagokiona jaso zuen eta… aurten bai! Aurten euskaraz ere bazegoen!!! Halako poztasun bat eragin dio eta irribarre txikia marraztu zaio aurpegian herritarrari idatzia ireki duenean. Udalak bere nahia betetzeko ahalegina egin du eta esker ona sentitu du. "Nik betebeharrekin konplitu eta Udalak euskaraz bizitzeko nahia garantizatzeko urratsa eman", gogoetatu du bere kolkorako.

A ze txikikeria! Pentsatuko du beharbada baten batek. Eta akaso ez zaio arrazoirik faltako. Baina… bizitza ez al dute era askotako pieza txikiek osatzen? Bizitzaren gazi-gozoa, bizipoza eta nahigabea, ez al dute eguneroko gertaera txikiek sentiarazten?

Gainera, ongi pentsatzen jarrita, igual ez da halako huskeria herritar honen ekinari esker Udalak ireki duen bidea. Izan ere, euskaraz bizi nahi duten gainontzeko Arakildarrek jakinarazpena euskaraz jasotzeko aukera izango dute aurrerantzean.

Bere alde egin duten pertsonez osatuta dago euskararen historia. Garai ilunenetan ere, amore eman beharrean duintasunez jokatu duten milaka pertsona anonimok ekarri dute euskara gaurko egoerara.

Ezintasuna handik, oztopoak hemendik, erasoa bestaldetik.... Zalantzarik gabe, egiatik badu dosi handi bat, baina pozgarria eta itxaropentsua da aldaketa txikiak eragin ditzakegula pentsatzea.

Saiatu amesten duzun moduan bizitzen, ilusioa eguneroko elikagai hartu eta euskaraz bizitzea bizipoz sortzaile bihurtu, argi eta garbi jakinda egiteak eta ez egiteak, biek dituztela ondorioak.

Garbiñe Petriati, Hizkuntza Eskubideen Behatokia

hara zer dien

Desio ezezagun hori...

Desio sexualaz asko hitz egin, idatzi eta irudikatu da. Filmetan, telebistan, liburuetan asko ikusi dugu eta entzun dugu desioari buruz, baina gutxitan aztertu da sexologikoki.

Desio sexualaz hitz egiterakoan ohikoa da ikuspegi bakar bat edukitzea.

Klaseak ematerakoan edota kontsultako lanean, desio sexuala, gehienetan, koitoa egiteko gogoarekin lotzen da eta, gainera, desioaren eszenifikazioa intentsitate askorekin irudikatzen da, eta berez sortzen den zerbait dela pentsatzen da.

Desio sexuala, izaki sexudunak izatearen ondorioa da, baina, desio sexuala dugula esateak ez du esan nahi ezin denik elikatu eta landu.

Pertsonen desio sexuala norberaren biografia sexualarekin, hau da, gure gorputzarekin izan dugun harremanarekin, autoirudiariarekin eta autoestimuarekin lotuta dago. Eta jaso dugun heziketa sexualak ere eragina dauka gure bizipenetan.

Honen ondorioz, desio sexuala eta bere bizipena oso pertsonala da eta norberaren bizitzari lotuta egon ohi da.

Gainera, desio sexuala oso anitza da eta nahiz eta gehienetan koitoarekin lotzen dugun, desio zabalak ditugu gizon eta emakumeok, hala nola, pertsona batekin egoteko desioa, praktika sexual zehatz bat edukitzeko desioa, elkarrekin paseo bat emateko desioa…

Bakoitzari dagokigu gure desioen esanahia topatzea eta nahi duguna argitzea, nahi dugun hori lortzeko, gure bidea eraikitzeko norberaren ardura bere desioa kudeatzea baita.

Hori bai, desioak bere espazioa eskatzen du, eta elikatzen ez badugu askotan ez zaigu agertzen eta. Estresa nola bizi modu azkarra eragozpena lirateke gure desioarekin izan dezakegun komunikazioan.

Honela, lurrarekin gertatzen den bezala, gure gorputzari ere bere kasa ibiltzen uzten badiogu, noizbehinka fruituak jaso ditzakegu, baina argi dago, tarte bat eskainiz, zainduz, gure gorputza lurra bezala emankorragoa izaten baita.

Olatz Berastegi

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Uharte Arakilgo euskararen ordenantza hein batean deuseztatua

Fermin Zabaltza Aleman, Administrazioan Euskaraz Taldea

Uharte Arakilgo Udaleko Euskararen Ordenantza hein batean deuseztatuta dago.

Hauexek dira deuseztatutako artikuluak:

8. artikulua. Euskara hizkuntza ofiziala duten administrazio edo erakunde publikoei Udalak euskaraz edo hizkuntza bietan bidaliko dizkie agiriak.

12. artikulua. Herritarrei ematen zaizkien inprimakiak euskaraz edo hizkuntza bietan egonen dira.

Pertsona batek aurkeztutako gora jotzeko helegiteari erantzunez 2014ko maiatzaren 21ean emandako Ebazpenean Nafarroako Administrazio Auzitegiak 8. eta 12. artikuluak deuseztatu zituen.

2014ko irailaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Udalak bi artikulu horiek deuseztatu zituela, Ebazpenari men egiteko.

Gaur egun euskara hizkuntza ofiziala den tokietan gaztelania ere ofiziala da. Administrazio edo erakunde publiko batean pertsona batek gaztelania erabil dezake, baita euskara ere, edo biak (horrelako lana hartu nahi badu). Uharte Arakilgo Udalak, ordea, ezin omen du aukeratu. Antza denez, gaztelania erabili behar du derrigorrez, gutxienez. Logikarik gabeko egoera da.

Inprimakiei dagokienez, gaztelania beti erabiltzeko inposaketa hortxe geratu da. Euskararen Ordenantzak erdarazko idazkiak onartzeari ez dio trabarik ipini, baina Nafarroako Administrazio Auzitegiak gaztelania inprimakietara zabaltzea agindu dio. Eremu euskaldunean euskaraz bizitzeko nahiaren aurka euskaraz eta gaztelaniaz bizitzeko agindu dio. Beraz, gaztelania inposatzen da.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileurrordetza

HIRITAR MERITUAREN DIPLOMA: Carmen Alba gobernu ordezkariaren eskutik jaso zuen Jose Julian Machain Eugi irurtzundarrak diploma. Azaroaren 1ean Irurtzungo pisu batean izan zen sutean Machainek eta beste irurtzundar batek pisuko jabea ateratzen eta eraikina husten lagundu zuten.

sakanerria >>

» Uharte Arakil

Uhartearrak hirigintza planaren berritzean parte hartzen ari dira

Ilbeltzaren 15ean eztabaida saioen ondorioak jakinaraziko dituzte

Uhartearrak hirigintza lantzeko egindako bileretako batean. UTZITAKOA

Gaur egun Uharte Arakilen indarrean dagoen hirigintza plana 1991koa da eta zaharkitua dago. Udalak aldaketa zehatzen bitartez bideratzen ditu jasotzen dituen hirigintza egitasmoak. 23 urteren ondoren, hirigintza planak berritzea behar duela iritzita, horri heldu dio udalak. Eta legeak hala eskatzen duenez, herritarren parte hartze zuzena sustatzen duen prozesua abiarazi du. Hura dinamizatuko duen teknikaria (Txema Jurado) kontratatzeko 4.500 euro bideratu ditu.

Teknikaria udaberrian herriko eragileekin elkartu zen eta bilera haietatik sortu zuten Uharte Arakilgo hirigintzari buruzko eztabaida-gidoia, baita prozesua dinamizatuko zuen talde eragilea, garagarzaroaren 26an osatu zena. Hura Lorea Irigoien, Mikel Razkin, Jose Mari Ustarroz, Miguel Angel Dominguez de Vidaurreta, Luis Beraza eta Ignazio Zubieta herritarrek eta Javier Rodriguez, Haitz Huarte eta Ainara Aiestaran udal ordezkariek osatzen dute, teknikariarekin batera.

Irailaren 24an eztabaida-gidoia aurkezteko batzarra egin zuten. Ondoren etorri dira herriak industria eta zerbitzuen arloan egitekoari buruz, Uharte Arakil bizitoki gisa izan daitekeenaz, herria handitzeari buruz eta herria hobetzearen inguruko lau batzarrak. Bestalde, Itxesia, Zerradoa eta Amurgin auzoei buruzko batzar ireki bana egitekoak dira. Itxesiari buruzkoa atzo izan zen. Zerradoari buruzkoa, berriz,heldu den ostegunean, hilaren 18an, 20:00etan, udaletxean.

» Iturmendi

Kurtso berriarekin batera, eskola berria

Ikasturte honetan mustu dute Iturmendiko eskola berria. 450 m² ditu, 3 gela handi, ordenagailu gela bat, komunak, aldagelak, irakasle gela eta psikomotrizitate gela

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Ikasle iturmendiarrak ikasturte honetan mustu duten informatika gelan.

Eskolako zuzendari Irene Arretxeren arabera, eskola zahar eta berriaren arteko aldea oso nabarmena da: "Eraikin zaharrean espazio oso murriztua genuen. Klaseak emateko gela bat bitan banatzen genuen akordeoi moduko pertsiana batekin, eta oso deserosoa zen, lekua txikia izateaz aparte ondoko gelako zarata guztia entzuten baitzen. Orain, ordea, bi gela handi ditugu, eta beste gela handi bat erdibituta daukagu, laguntza emateko".

Edonola ere, eskola berria egiteko proiektuak hainbat oztopo gainditu behar izan ditu azkenean argia ikusi ahal izateko. Plana izatez 2010 inguruan zen abiatzekoa. Hasierako egitasmo horretan hiru gela handi eta patio estali handi bat egitea zegoen aurreikusita, horretarako aurrekontua 630.000 eurokoa zelarik. Haatik, plana onartu eta hilabete batzuen buruan Hezkuntza Departamentuak egitasmoa atzeratzea erabaki zuen. Arretxek aitortu duenez, momentu hartan gauzak oso beltz ikusi zituzten: "plana atzeratu zutenean azkenean egingo ez zutela pentsatu genuen. Azken batean, gaur egun gauzak nola dauden ikusita, ez da erraza herri txikietan horrelako egitasmoak aurrera ateratzea".

Oztopoak oztopo, azkenean egitasmoa gauzatzea lortu zuten, eta hori, Arretxeren esanetan, Iturmendiko Udalak emandako laguntzagatik izan zen hein handi batean. Hark 2011n kolaborazio hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin, eskola berria eraikitzea posible egin zuena. Hala ere, azkenean burutu zen plana egiteko 410.000 €ko aurrekontu bat onartu zen, hasierako kopurutik urruti dagoena. Hori dela eta, hirugarren gela eta patio estalia ezin izan ziren egin. Arretxeren arabera, lastima da beste gela bat eta patio handiago bat ez izatea, baina bi gela handiekin eta eraikinaren ondoan dagoen hormigoi zatiarekin ondo moldatzen dira, eta eguraldia txarra denean sarreran espazio nahikoa dago umeak estalpean egoteko.

Elkarlanean oinarritutako antolaketa

Gaur egun 3-12 urte bitarteko 19 ikasle ditu Arrano Beltza eskolak. Klaseen antolaketari dagokionean, antzeko adina dutenak klase berean aritzen dira. Horrela, haur hezkuntza osoa gela batean dago, eta lehen hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara bitarteko ikasleak ere klase berean daude. Arretxeren arabera, adin desberdineko ikasleak klase berean aritzeak alde positibo gehiago ditu negatiboak baino, klaseak horrela antolatuta ikasleen arteko elkarlana sustatzen baita.

Hezkuntza alorrean izandako murrizketei dagokienean, zuzendariak garbi dauka haren ondoriorik ez dutela pairatu: "Murrizketen eraginik ez dugu jasan. Guri izatez hiru postu dagozkigu, baina pixka bat borrokatuta beste lanaldi erdi bat lortu genuen. Postu erdi hau lortu izan ez bagenu ez ginatekeen gai izango batzuetan behar ditugun bikoizketak egiteko".

» Arbizu

Ikastolak haren sortzaileak omendu ditu

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Azaroaren 29an Arbizuko Andra Mari ikastolak bere 40. urteurrena ospatu zuen. Omenaldi ekitaldi baten bidez, urte hauetan guztietan izandako oztopo, laguntza eta bestelako bizipenak gogora ekarri eta duela berrogei urte ikastolaren proiektua abian jarri zutenei esker ona adierazi nahi izan zieten.

Andra Mari ikastolako lehendakari den Igor Artiedak hitza hartu zuen. Hark ikastola sortzeko lehen haziak erein zituzten gurasoei esker hitzak zuzendu zizkien: "Gaur egun Arbizun hezkuntza proiektu sendo bat badugu, hein handi batean guraso haiei esker da. Ikastolaren proiektuari ekiteko diktadura garaian beren seme alaben hezkuntza arriskatu zuten, zerotik hasi baitziren. Ausardia handiz jokatu zuten".

Udalaren izenean Jesus Mari Mendinueta mintzatu zen: "Udaletik ikastolaren proiektua oraindik beharrezkoa dela ikusten dugu, eta horregatik laguntzen jarraituko dugu, behar dituzten baliabide guztiak beren esku utziz", gaineratu zuen Mendinuetak.

Ikastolako sortzaileek omenaldia jaso zuten.

Ibilbideaz

Ekitaldirako bereziki prestatutako bideo bat proiektatu zen, zeinetan ikastolaren 40 urteko ibilbidearen errepaso bat egiten den. Andra Marin ibilitako ikasle, irakasle, sortzaile zein gurasoen adierazpenak biltzen dira bideoan. Haiek adierazten duten bezala, hasierako urteak oztopoz beterikoak izan ziren, ia hilero lekuz aldatu behar izaten baitzuten, eta baliabide aldetik ere gabezia handiak zituzten. Instituzioetatik laguntza gutxi izan zuten. Soilik Principe de Vianatik jaso zuten babesa, baina hau ere nahiko mugatua zen. Hala ere, bideoan ongi erakusten den bezala, gurasoen elkartasunaren eta auzolanaren bitartez proiektua aurrera ateratzea lortu zen. Patxi Leiza ikastolaren sortzaileen izenean mintzatu zen: "inplikazioa izanda, lan asko eginda, ametsak egia bihur daitezke", azpimarratu zuen Leizak. +www.guaixe.net

» Altsasu / Etxarri Aranatz

Bikaintasuna Zelandiri

Amaia San Romanek eta Toñy Lopezek jaso zuten saria. UTZITAKOA

Azken sei urteetako lanaren saria jaso zuen Zelandi eskola publikoak azaroaren 27an: Bikaintasunarekiko konpromisoaren agiria. Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioak eman zion aitortza; Toñy Lopez zuzendariak eta Amaia San Roman kalitateko arduradunak jaso zuten.

Ikastetxean 2008-2009 ikasturtean hasi ziren Hezkuntza Departamentuaren SGCC-IKKS kalitate sistemaren arabera lanean. "Sistemak eskatutakoa betez eta ikastetxeko hausnarketarekin aberastuz hobekuntza nabarmenak ezarri ditugu eskolako kudeaketan", esan digu Lopezek. Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren onarpena jaso ondoren fundazioak bikaintasun azterketa pasa zion ikastetxeari eta hark gainditu egin zuen, agiria eskuratuz.

Ekitaldi berean Diario de Noticias egunkariak Herritar Bikaintasunaren saria banatu zuen. Egunkariko irakurleak web orriaren bidez lau hautagairen artean aukeratzeko aukera zuten. Haietako bat Jon Etxeberria Ijurra etxarriarra zen, azkenean hirugarren izan zena. Saria Uharte-Iruñeko Aritz Azparren Vicentek jaso zuen.

SAKANA

Relatos de plomo proiektuaren segida

Nafarroako Gobernuak *Relatos de plomo*, "terrorismoaren historia Nafarroan" egitasmoko bigarren liburukia aurkeztu zuen azaroaren 27an. Gobernuak jakinarazi duenez, bigarren liburuan 1987 eta 2011 urteen artean ETAk Nafarroan egindako 200 atentatuen kronikak eta indarkeria jasan zuten 22 pertsonari egindako elkarrizketak jaso dira. Kronologian hainbatetan aipatzen dira Sakana nola sakandarrak. Duela urte bat 1960 eta 1986 urteen arteko epea hartzen zuen liburukia argitaratu zuen Nafarroako Gobernuak.

» Iturmendi

Andre Mariaren mirabeak, 75 urtez herrian

Pasa den azaroaren 24an Andre Mariaren mirabeek 75 urte egin zituzten Iturmendin. 75 urte Madrildik ihesi, Domingo Lumbierrek eraikin bat utzi zien. Gerra bukatuta joatekoak ziren, baina iturmendiarrek eskatuta gelditu eta bertan komentua fundatu zuten. Mojen etxea, lehenik eta behin, nobiziagoa izan zen. Etxearekin batera erosia zuten baratzean, 1958an, beste eraikin bat jaso zuten. 1967an, plazako eraikina txikiegi geratu zitzaielakoan, berau handiagotzeko erreforma bat egin zuten. Honen emaitza gaur egungo lau solairuko komentua izan zen. Ondoren, 1993ko maiatzaren 8an, Osasunaren Ama Birjinaren egoitza mustu zuten, mojen guraso eta anai-arrebak hartu eta zaintzeko.

» Irurtzun

ITBren hamarrekoa

Irurtzun Telebistak (ITB) bere 10. saioa publiko egin du. Hartan luze jorratzen dute Orritz dantza taldearen 25. urteurrena. Dantza jaialdiko irudiekin batera, ondorengo ospakizunean Opa Gangnam Style doinuarekin orritzeko mutilek batelera dantzatzen ageri dira ere. Irurtzundarrak Munduan atalak Saharara eramanen gaitu. Bitxikeriak atalean, Ibon bekarioak, sartu-irtena eginen du gazte txokoan. Ohi bezala, Irurtzungo agendarekin despedituko da ITB.

Nonerabili

BASOMUTUR
ALTSASU
Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA
ALTSASU
Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

IÑAKI OINETAKOAK
ETXARRI ARANATZ
50 €ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

GERTU SAKANA
ALTSASU
Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA
IRURTZUN
2 produktu erosita, % 10eko deskontua.

ASENSIO
ALTSASU
100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO
ALTSASU
Eguneko menuan txupitoa doan.

SARABE TXOKOA
ALTSASU
30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

VALCARCE
OLAZTI
0´06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA
LAKUNTZA
15 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30 €ko gastuarekin bibote eta bekainak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

» Unanu

Herri sarrera konpontzeko premia

Unanuko Kontzejuak 75.220 euroko aurrekontua onartu du heldu den urterako. Kontzejuko kideek herri sarrerako zoruak, autobus markesinatik beherakoa, konpontzeko premia duela uste dute eta horretara bideratuko dute aurrekontuan jasotako inbertsio bakarra. Diruak gehiagorako emanen balu herriko kaleren bateko zatia ere konponduko litzateke. 10.000 euro inguruko diru-saila izanen da. Aurreikusitako lan horretarako, basoko lantegi baten salmentatik ateratako dirua bideratuko du kontzejuak.

» Lizarraga

Ur araztegia 2017rako

Nilsa enpresa publikoak eskatuta Ergoienako Udalak zabaldu egin du Lizarragako hondakinuren tratamendu planta egokitzeko prozedura. Gaur egun Lizarragako kanpo santu ondoan putzu-septiko batean jasotzen dira herriko ur beltzak. Gero haiek jaso egiten ditu Nilsak behar bezala tratatzeko. Ergoienako Udalak abiarazitako prozedurarekin 2017an Lizarragak ur araztegia izanen du. "Putzu-septikoa dagoen tokian egonen da, baina pixka bat handiagoa izanen da" azaldu digu Maribel Senar Berastegi alkateak.

Bakaiku eta Iturmendiko ur araztegia aurreneko herrian dago. NILSA

Ingurumenaren babeserako Foru Legeek diotenari jarraiki Nafarroako 2000 biztanletik gorako herri guztiak ur-araztegiak dituzte. Nafarroako Gobernua, Nilsa enpresa publikoaren bidez, 250 biztanle baino gehiago dituzten herrietako ur beltzek tratamendu egokia izateko lanean ari da.

Sakanan

Gaur egun ibarrean zazpi ur araztegi daude eta haietako hiruk bi herritako ur beltzak jasotzen dituzte: Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza-Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku-Iturmendi, Urdiain-Altsasu eta Olatzagutia. Mikro-estazio eta fosak (putzu beltzak), berriz, Sakanako 19 herritan daude: Aizkorbe, Urritzola, Errotz, Izurdiaga, Etxeberri, Egiarreta, Etxarren, Ekai, Zuhatzu, Satrustegi, Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Arruazu, Unanua, Dorrao, Lizarraga, Lizarragabengoa eta Ziordia.

» Irurtzun

Udalak garbitzaile postua bete nahi du

Aldi baterako postua da. Izen ematea hilaren 19an bukatuko da

Irurtzungo Udalak lehiaketa-oposizio bidez aldi baterako garbiketa postu bat bete nahi du. Langile horren egitekoa publikoak edo udalarenak diren eraikinak eta instalazioak garbitzea izanen da. Interesatuek, besteak beste, 16 urteak beteak izan behar dituzte, gutxienez eskola ziurtagiria edo baliokidea eta euskararen gutxieneko ezagutza. Oposizio-lehiaketan parte hartu nahi dutenek instantzia udal bulegoan abenduaren 19ra arte aurkezteko epea dute.

» Ergoiena

Bake epaile ordezkoaren kargua betetzeko deialdia

Ergoienako Udalak jakinarazi du bake epaile ordezkoaren kargua betetzeko eskaerak aurkez daitezkeela. Horretarako, hamabost egun naturaleko epea ireki da gaurtik aurrera. Interesa izanik gaitasun eta bateragarritasun baldintzak betetzen dituztenek bake epaile ordezkoa izateko eskaerak udalaren bulegoetan aurkez ditzakete.

» Altsasu

Perez Hurtado udalera bueltan

Altsasuko Talde Sozialistak bere idazkari Juan Miguel Perez Hurtado aukeratu du Braulio Salvador Calvoren ordezko izateko, sozialistek udalean dituen bi zinegotzietako postu bat betez. Zinegotzi sozialista zena lastailaren 4an hil zen. Hura Altsasuko udal politikan beterano batek ordezkatu du. Kargua hartzeko epeak kontuan izanik, Perez Hurtadok heldu den urtean ekinen dio bere zinegotzi aldi berriari. Legegintzaldia udaberri akaberan despedituko da.

LEGEGINTZALDI MUGITUA

2011ko udal-hauteskunde zerrendak osatzerakoan Altsasuko Talde Sozialistaren eta Iruñeko zuzendaritzaren artean gatazka sortu zen. Altsasutik proposatutako eta Perez Hurtado buru zuen zerrenda betatu egin zuten Iruñeko zuzendaritzatik eta Maria Jose Notario buru eta independente asko zituen beste zerrenda bat onartu zuten. Notarioren kargu uztea eta Javier Donloren osasun arazoengatik izandako baja sozialistak ordezkaritzarik gabe utzi zituen. 2013ko garagarrilaren 26an Braulio Salvador Calvok (zerrendako bosgarrena) Donloren tokia eta David Medinak 2014ko otsailaren 26an Notariorena hartu zuten.

» Arakil / Irurtzun

Biurdana, bi ikasturte barru gainezka

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean Iruñeko Biurdana institutuko zuzendari Javier Perez Garciak eta ikasketaburu Asier Azpilikuetak azaldu zutenez institutuak gero eta ikasle gehiago hartzen ditu. Hezkuntza Departamentuak espazio arazoa aldameneko beste institutu bat erabiliz moldatu du, baina 2016-2017 ikasturtean han ere tokirik ez dela izanen gaztigatu zuten Biurdanako buruek.

Espazio faltagatik Batxilergoko ikasleak Donibanen ari dira. Gainera, gimnasioan ikastalde guztiendako tokirik ez dagoenez astean 23 saio Anaitasuna klubean egiten dira, departamentuak alokairua pagatuz. Ikastetxeko guraso elkarteak, baita hara ikasleak bidaltzen dituzten ikastetxeetako guraso elkarteak ere, tartean Irurtzungo Atakondoakoak, behin baino gehiagotan eskatu dute Iruñea iparraldean bigarren hezkuntzako ikastetxe berria egitea. Irurtzungo kasuan, gainera, ikasketa horiek herrian eskaintzeko eskaera ere egin izan da. Udalak eraikin berrirako lurra ere aurreikusia du.

» Altsasu

Ikurrinaren aldeko aldarrikapena herrian barna zabaldu zuten.

Ikurren alde herri gisa erantzuteko eskatu dute

Zelai kaleko mastatik ikurrina kendu dute, baina Altsasuko etxe askotan zintzilikatu dute

Azaroaren 29an, euripean, 300etik gora altsasuarrek manifestazioa egin zuten. *Gure ikurren alde, inposiziorik ez* leloa zuen pankartaren aurretik ikurrina handi bat zutela egin zuten ibilbidea, Zelai kaleko masten parean despeditu zena. UPNren jarrera "antidemokratikoa" salatu zuten, "gureak ez diren sinboloak inposatzen saiatzen den bitartean, gure sinbolo eta ikurren kontrako erasoak eta kriminalizazio kanpainak burutzen ditu uneoro". Foru administrazioarena "sorgin-ehiza" zela salatu zuten. "Gure ikurrak kendu beharrean zergatik ez dituzte eraikin publikoetan dauden ikur frankistak kentzen?"

UPNren erasoari herri bezala erantzuteko deia egin zuten: "gure identitatearen kontrako erasoa den heinean gure adierazpen askatasunaren kontrako eraso garbia ere bada. Altsasu herri oso anitza da eta ezberdinen arteko eskubideak defendatzea denoi dagokigu". Atzera ere, nabarmendu zuten Zelai kaleko hiru mastetako banderak ez direla inongo instituzioren, kolektiborenak edo partikularrenak: "ikur hauek Altsasuko herriarenak dira eta altsasuarrei soilik dagokigu erabakitzea zer egiten dugun ikur hauekin".

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

9 lagunendako
TAXIA
Jon Kordon
948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

BIL TOKI
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua 8,25€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 · Altsasu

nc nerea cenoz nutrición
Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatua (Nafarroako Unibersitatea)
info@nereacenoz.com
nereacenoz.com
Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)
Pisua kontrolatzeko dietak:
· Argaltzeko dietak
· Pisua hartzeko dietak
· Mantenimendu dietak
· Haurdunaldi-dietak
Patologia ezberdinetarako dietak
Kirol-elikadura
Elikadura arazoak
Nutrizio-hezkuntza

» Altsasu

Mende eta erdi tren

Erakusketa abenduaren 21era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Joan den asteko asteartean mustu zuten Trenak Altsasun egin dituen 150 urteurrenari buruzko erakusketa. 1864ko agorrilaren 15ean mustu zuten tren geltokia eta bost egun geroago hasi ziren trenak burutzen duen Madril eta Irun arteko ibilbidea egiten. Orduz geroztik asko izan dira han lan egin dutenak eta askok tren geltokiko oroitzapenak mantentzen dituzte.

Astearteko mustutze ekitaldian asko ziren oroitzapenak. Azaldu zigutenez, trena gelditzean geltokiko jantokiak bidaiari askori ematen zien egunero bazkaria edo afaria. Antonia Tobar sukaldariaren ospea handia zen eta iruindar batzuk ere ezkontza bazkaria tren geltokiko jatetxean egin zuten.

Socorro Fernandezek 11 urte egin zituen garbitzen. 1982an "mugimendu handia" zegoela azaldu zuen. "Langile asko eta giro ona genuen. Erabiltzaile asko zeuden". Pablo Sarasatek Madrilera edo Parisera joan behar zuenetan Altsasun gelditu beharra zuen. Tren geltoki ondoko Fonda Pio Sayas en ostatu hartzen zuen. Fernando Sayasek azaldu zigunez: "urte guztirako zuen gela erreserbaturik. Gauez trenik ez zenez, han lo egiten zuen. Gure senideek, Encarnak eta Pacok, Sarasatek utzitako partiturak jotzen zituzten".

Mikado lokomotoraren maketa egilea bisitariekin hizketan.

Trenean edo trenbidean aritutako eta ari diren hamaika altsasuarren ekimenez antolatu da erakusketa: Beatriz Montesinos, Javier Mazkiaran, Fernando Sayas, Blanki Torres, Arturo Carreño, Gregorio Sanchez, Migel Jorge, Carmelo Llena, Luis Perez, Juan Carlos Calleiras eta Jesus Ignacio Migel. Haien ogibideari lotutako tresneria eta jantziekin batera, argazki zaharrak, Begoña Salazarrek prestatutako liburu bat, Migelen koadroa, Esteban Zornozak egindako tren lokomotora baten maketa eta bi metroko luzera duen maketa bat daude ikusgai.

Osorik www.guaixe.eus

»

Podemos-Ahal Dugu alderdiak eratzen segitzen du

Estatuko egitura aukeratu ondoren Podemos-Ahal Dugu alderdiko zirkuluak udalerrietako egitura erabakitzeko egunak izanen dituzte hilaren 26tik 30era. Alderditik antolaketa maila hori "agian garrantzitsuena" dela adierazi dute, "harremana hiritarrekin udal mailan sortzen baita". Zuzendaritzatik jakinarazi dutenez, Podemos-Ahal Dugu gisa udal hauteskundeetara ez dira aurkeztuko.

Alderdiaren barne araudiak dioenez, 100 pertsona baino gutxiago izena emanda dauden udalerrietan ez da beharrezkoa Herritar Kontseilua aukeratzea. Haietan idazkari nagusi postua aukeratuko da. Altsasun 30 bat dira Podemos-Ahal Dugun izena eman dutenak eta Virginia Alonso Apariciok idazkari posturako aurkeztu du bere burua.

» Olatzagutia

Koadroetan inspiratutako jaiotzak

Ilbeltzaren 11ra arte, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta domeketan 12:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara Olatzagutiko elkartearen egoitzan

Sakanako Belenzaleen Elkarteak dozena bat dioramatan beste horrenbeste jaiotza erakusgai ditu. Haietatik zazpi aurten sortu dituzte eta gainontzekoak aurreko urteetakoak dira. Sorkuntza berrietarako inspirazioa paisaiak dituzten koadroetan opatu dute. Interneten opatu dituzte eta haiek izan dituzte belenzaleek abiapuntu.

Elkarteko kideek otsailean ekin zioten erakusketa prestatzeari. Maiatzera arte beira zuntzez egindako zeruak prestatzen egon ziren. Hura moldatu eta margotzea izan da egitekoa. Haietako batzuk zeruan hodeiak margotzera ere ausartu dira eta pixkanaka zeru guztietara zabalduko dituzte. Zeruak prestatuta eta egoki argiztatuta, belenzaleek urteetako asmoa bete dute aurten, orain arte oihalekin eta bestelakoekin moldatzen baitziren.

Elkarteko kideak erakusketa prestatzen aritu ziren asteburuan.

Zurgindegia jaiotzako detailea.

Langintza

Zerua egiten denbora luze eman dute eta erakusketara jaiotza guztiak behar bezala prestatuta egoteko gogoz egin behar izan dute lan. Horretan aritu dira Emeterio Galan, Paco Sanz, Javier Beunza, Katy Mayor, Pedro Urkia, Jesus Mari Garmendia, Luis Borrega, Patxi Agirre eta Felipe Orabengoa. Haien lanak Olatzagutiaz aparte, Tafallan, Ribaforadan, Noainen, Atarrabian, Iruñeko Baluarten, Gasteizen, Arbizun eta Bakaikun ikusgai izanen dira.

Sakanako Belenzaleen Elkartearen jaiotzek Interneteko adituen foroetan sona handia lortu dute. Hala, jaiotzak prestatzen ari zirela Valentziatik bisitan etorri zitzaizkien. Erakusketa zabalik den artean Madril eta Valentziatik bisitak espero dituzte.

Aurten ez dute jaiotzak egiteko ikastarorik egin, baina heldu den urtean, Aste Santu ondoren, ikastaroa eginen dute. Jende gehiagoren laguntzarekin erakusketa errazago antolatuko litzatekeela azaldu digute. Olatzagutiko Udalari eskerrak eman dizkiote egoitza uzteagatik.

Zozketa

Erakusketara joaten direnek jaiotza txiki baten zozketarako txartelak erosteko aukera dute. Salmenta horrekin finantzatzen da elkartea.

20 m²

Jaiotza edo diorama bakoitza egiteko beharrezko porespan kopurua. Bakoitzak 5x5 metroko azalera hartzen du. Laban zorrotza, eztainua urtzeko gailua, pintura, lurra, kola, goroldioa, artea eta pazientzia erabiltzen dute porespana lantzeko.

ABENDUAK 29 - 17:00 / 19:00

MOONSTER PARTY

ilargi beteko gau batean, kalabaza eta garezur artean,
moonster neskak elkartuko dira...

iortia KULTUR GUNEA CENTRO CULTURAL

iortiakultura.com

SAKANA

Azarokotea Arbizura

Sakanako Dendarien Elkarteak egindako aurreneko sustapen kanpainak badu saritua: Elena Lizarraga arbizuarra. Etxarri Aranazko Iñaki oinetako-dendan erosketa egiteak eman dio saria. Elkarteko kide diren 42 dendetan azaroan barna erosketak egiten zituzten bezeroak zozketarako txartel bana eskuratu zuten eta zozketak zori ona Arbizura eraman du. Bestalde, Nafarroako Gobernuak jakinarazi du Altsasuko Dendari Elkarteari (ADE) eta Dendari Elkarteen Federazioari diru-laguntza eman diela. ADEk merkataritza dinamizatzeko, kontsumoaren sustapenerako kanpainetarako, merkataritza animaziorako eta abarretarako erabili du diru-laguntza.

Urdiain

Sarabeko gazta, bigarrena, Lizarran

San Andres feriak zirela eta azaroaren 30ean XI. Urbasa-Andiako Gazten Txapelketa izan zen Lizarran. 11 artzainek aurkeztu zituzten euren gaztak lehiaketara. Epaileek, tartean Jose Mari Ustarroz uhartearra zegoen, Eulateko Ricardo Remiro riemanzioten lehen saria. Bigarrena Urdiaingo Sarabe gaztandegiko Josu Ostizak jaso zuen.

Sakatxartela sariak

Azaroko azken egunak Sakatxartela Asteburua izan ziren. Bierrik fundazioko laguntzaileek euren erosketak egiterakoan eta BeleixeGuaixe txartela erabiltzerakoan bi sari ederren zozketan sartzeko aukera izan zuten. Sariak Altsasun gelditu dira. Erkuden Ramosek Artazako kanpinean bi lagunendako gau bateko egonaldia etxola batean eta bi saio Finlandia gunean saria jasoko du. Bestalde, Sole Utrillak Iortia kultur guneko zinemarako hilabeteko bi txartel eta Beleixeguaixe txartel bat jasoko ditu.

BeleixeGuaixe Txartelak Bierrik fundazioko babesleei beste abantaila bat emateko eta ibarrean erosketak sustatzeko sortu ziren Sakatxartela Asteburuak. Aurten bostetan egin izan dira sustapen kanpaina horiek. Bierrik fundazioak aurrera begira BeleixeGuaixe Txartelaren bidez egiten duen eskaintza hobetzeko asmoz, bazkideei galdetegi labur bat erantzuteko gonbitea egin die. Hura astekariko 13. orrian dago ikusgai. Erantzunak Internet bidez ere eman daitezke.

TXARTELA LORTZEKO

Bierrik Fundazioko babesle egiteko 948 564 275 eta 948 562 107 hots egin edo www.guaixe.net atarian sartu.

SAKANA

Prestatutako kutxak bete ziren. EÑAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA

Urteko bigarren jaki bilketa handia egina

Nafarroako Elikagai Bankuak urteko bigarren jaki bilketa handia burutu zuen azaroko azken asteburuan. Sakanan bost herritan izan zen elikagaiak emateko aukera: Irurtzunen, Uharten, Arbizun, Etxarrin eta Altsasun. Arbizun eta Etxarrin bilketa estreinakoz aurten egin den arren, jendearen erantzuna apartekoa izan zela azpimarratu zuen Nerea Navarro Etxarri aldeko Gizarte Zerbitzuko hezitzaileak. **Osorik: www.guaixe.eus**

Arbizu / Etxarri Aranatz

UEMA, lorpenak eta erronkak

Horien berri emanez Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) etxeetara berri-papera zabalduko du

UEMAko kide diren udaletako ordezkariak elkarrekin. UTZITAKOA

Arbizuarrek eta etxarriarrek jasoko duten argitalpen horretan UEMAko lehendakari Maren Belastegik udalerri euskaldunek eta euskararen arnasguneek daukaten "garrantzia" azpimarratu du. "Udalerri euskaldunei teorian onartzen zaien garrantzia praktikara eramateko unean gaude. Euskararen arnasguneek politika bereziak behar dituzte." Eta horregatik, Belastegiren arabera, UEMAk politika "ausartak" bultzatuko ditu.

Berri-paperean ere administrazioa euskalduntzen egindako ahalegina eta emandako aurrerapausoak jaso dituzte. UEMAko udal guztien diagnosia egin dute eta horren araberako sailkapena ere egin dute. Belastegik esan duenez, "UEMAko udalak oso maila onean daude euskararen erabilerari dagokionean."

UEMAk kide dituen udalak 2013ko diagnosiaren arabera lau mailetan sailkatu ditu. Arbizu eta Etxarri Aranatz gora bidean mailan daude, bigarrenean. UEMAk berak aitortu duenez, maila horretan dauden udalek "asko aurreratu dute euskarari lehentasuna emateko hizkuntza politikaren baitan. Baina jauzi kualitatiboa eman behar dute tontorrean dauden herrien mailara iristeko". Udal langileak euskaldunak izateko egindako aurrerapenak aitortu zaizkie. Aldi berean, bi udaletan euskara hutsez funtzionatzeko zailtasunak daudela aitortzen da: zabalkunde handiko euskarrietan, beste erakunde publikoekin edota enpresekin euskarazko harremanetarako arazoak.

Estetika zentro osoa

Estetika, edertasuna baino gehiago da

Josune Marauri
Fisioterapeuta, jarrera espezialista
(KOL. ZBK.: 443)
638 48 47 80

- Escoliosia
- Haur eta helduekin jarrera lanak
- Diagnostikorako McKenzie metodoa eta tratamendu mekanikoa
- Etxez etxeko zerbitzua

Gixane estetika
948 563 029

Kalitate handia prezio onean

Maria Duol · Karicia · Golden Piramide

- Lore eta mineral esentziak
- Olio esentzialekin egindako kremak
- Masajeak, erlaxazio eta orekarako masajeak
- Pack txikiak: krema hidratatzailea, arrosa ura eta gari haziaren serum-a.

Zelai kalea 27, 2. esk. · Altsasu

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

Borja Ondarra Ondarra

VII. urteurrena

Hogeitahiru urte besterik
pasarte onez beterik
inoiz pentsatu ote zenuen hainbeste
miresle izaterik
zazpi urte pasaturik
ezta atzera bueltarik
zu betirako mantenduko zara
alai eta gazterik.

Zure kuadrila

Luis Arratibel Mendinueta
Angelines Madrigal Lopez

Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

Eusebio Lazkoz Razkin

III. urteurrena

Gure aldetik joan zinen,
gurekin zaude,
beti jarraituko duzu gurekin.
Maite zaitugu.

Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK | 2 TEKNOLOGIA | 3 LANA/NEGOZIOAK | 4 DENETARIK | 5 IBILGAILUAK | 6 HARREMANAK | 7 AISIA/KIROLA | 8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Elai Alai dantza taldean ikasturte osorako irakasle baten beharrean gaude. Lana larunbat goizetan da. Interesatuak elaialaikuntza@gmail.com helbidera idatzi edo Evarekin kontaktuan jar daitezela: 646 40 31 20.

Harakina behar da Goierrin. Esperientziaduna eta langile fina. Interesatuek hots egin dezatela 635 75 83 75 telefonora.

LAN ESKARIA

Zaintza eta etxeko lanak. Emakumea naiz eta etxeko lanak egiteko, haurrak eta adineko pertsonak zaintzeko lana bilatzen ari naiz. Eskarmentu eta ezagutza handia ditut alzheimerra duten pertsonen zaintzan.Orduka. Nire telefonoa 639 15 88 12.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Sakanan liburu-denda eskualdatzen da. Interesatuek hots egin dezatela 666 79 43 53 telefonora

Apartamentua alokatzen da. Altsasun. Jantzita. Hots egin 660 87 75 00 telefonora eguerdian edo 19:00etatik aurrera.

Opatutakoak / galdutakoak

GALDUTAKOAK

Haur silleta. Euritik babesteko plastikoa galdu nuen Arbizun. Telefonoa 667 26 67 46.

Ikastaroak

Astrologia eta Reikia. Astrologia: ikastaroak, kontsultak, karta astrala. Reikia: ikastaroak, saioak. Hots egin 659 82 94 38.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Oharrak

Etxarriko irakurketa taldea. Abenduaren 20an, 19:00etan, Fermin Etxegoienen "Autokarabana" liburuaz hitz egitera elkartuko dira Etxarri Aranazko liburutegian.

Elkartrukea. Ingeles mintza. Maila ertain edo goraxeagokoa baduzu eta langilea bazara –ez ikasleentzat- ingeles herdoildu hori taldean askatzeko. Aingeru 685 47 46 82.

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xaloa telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-iruñerrian edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakrak liburudendan (kale Nagusia 54).

EHE ren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zenbaki saituaren jabea euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartean sorkuntzabeka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

JAIOTZAK

- **Olaia Ganuza Asurmendi,** azaroaren 23an Altsasun.
- **Elene Cantero Fernandez de Garaialde,** azaroaren 25ean Altsasun.
- **June Perianez Higuero,** azaroaren 27an Altsasun.
- **Mara Leitza Ruiz de Alegria,** azaroaren 27an Arbizun.
- **Simohamed Bouajaja Bouajaja,** azaroaren 27an Irurtzunen.
- **Jon Gurutz Garcia Carrillo,** azaroaren 28an Altsasun.

EZKONTZAK

- **Mikel Donazar Perez eta Aitziber Lizarraga Mendinueta,** azaroaren 29an Arbizun.

HERIOTZAK

- **Alfonsa Garcia Molero,** azaroaren 25ean Altsasun.
- **Amparo Marin Navarrete,** abenduaren 8an Altsasun.
- **Florencia Eugi Elcano,** abenduaren 8an Altsasun.
- **Juan Lopez Lopez,** abenduaren 7an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

MENDI LASTERKETAK

RIPODASEN TOR DES GEANTS ALTSASUN: Gorka Ripodas mendi korrikalariak Tor des Geants lasterketa gogorrean (330 km, 24.000 m desnibela) hartutako irudiekin proiekzioa eskainiko du bihar, larunbatean, 19:00etan, Iortia Kultur Gunean.

kirola >>

Pilota

Joanes Bakaikoa txapelarekin, sari ematean.

Bakaikoa txapeldun

Jubenilen lau t´erdiko Nafarroako txapelduna izan da Joanes Bakaikoa, bigarren urtez jarraian

Joanes Bakaikoa etxarriarra etorkizuneko pilotari handi bat izateko dohaiak dituela erakusten ari da behin eta berriz. Jubenilen buruz buruko txapelketa irabazi eta gero, abenduaren 3an beste txapela garrantzitsua jantzi zuen: Nafarroako jubenilen mailako lau t´erdiko txapela, Guillermo Mazo Memorialekoa. Final ikusgarrian Bakaikoak 6 tantotan utzi zuen Unai Laso. Gaur Sakanako kirolariik onenaren saria jasoko du etxarriarrak, merezimendu osoz.

Finala Labrien jokatu zen, 450 ikusleren aurrean, sekulako giroarekin. Partida hasieratik dominatu zuen Joanesek. Ia guztia egin zuen ongi. Ongi atera zuen –5 tanto egin zituen sakez–, errematearekin asmatu zuen, erasoan bikain aritu zen eta defendatzea tokatu zitzaionean ere ongi erantzun zuen. Inork lortu ez duena lortu zuen: Guillermo Mazo Memoriala, Nafarroako jubenilen lau t´erdia, bi aldiz jarraian irabaztea.

Pala

Nafarroako Emakumeen Paleta Goma Txapelketako finalistak.

Puntako palistak

Irati Lasa Nafarroako txapelduna eta Aristorena, Ansotegi eta Parot, txapeldunordeak

Azaroaren 30ean Nafarroako Emakumeen Paleta Goma Txapelketako finalak jokatu ziren Labriten. Finalera 3 sakandar iritsi ziren. Senior mailan, San Migeleko Munetak eta Larrionek 30-29 irabazi zieten Oberenako Yanira Aristorena etxarriarrari eta Kontini partida ikusgarrian. Eta 22 urtez azpiko finalean, Oberenako Murillo eta Irati Lasa etxarriarra 30-28 gailendu ziren Etxarriko Gure Pilotako Ansotegiren eta Paroten kontra.

Kiroldegia

Sakanako kirolari onenek euren saria jasoko dute gaur

Joanes Bakaikoa, Maialen Aramendia, Aritz Munarriz, Sara Lizarraga, Javi Moreno, Mari Gwen Davies, Sakanako Irristaketa Taldea, Andra Mari ikastolako herri kirol taldea, Luis Martil eta Ricardo Lopez de Sabando dira sarituak. Arruazuko ostatuak hartuko du ekitaldia, gaur, 20:00etan

2011-2012 urtean kirolari onenen sariak jaso zituztenak.

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak bi urtetik behin ematen ditu kirolari onenen sariak. Gaur, abenduaren 12an, 2013 eta 2014ko Sakanako kirolari onenen sariak banatuko dituzte, 20:00etan, Arruazuko herriaren etxean eginen den ekitaldian.

Epaimahaiak nahikoa lan izan du kirolari onenak nortzuk diren erabakitzerakoan, Sakanan puntako kirolari ugari daudelako. Azkenean, Joanes Bakaikoa pilotaria, Maialen Aramendia txirrindularia, Aritz Munarriz mendi korrikalaria, Sara Lizarraga borrokalaria, Javi Moreno korrikalaria, Mari Gwen Davies korrikalaria, Sakanako Irristaketa Taldea eta Andra Mari ikastolako herri kirol taldea dira talde aukeratuak, eta Luis Martil eta Ricardo Lopez de Sabando aipamen bereziak, karatea eta pilota sustatzeko egin duten lanagatik. Gaur jasoko dute saria.

Ekitaldia Mank-eko Kirol Zerbitzuak antolatutako Kirol Asteburuaren barruan kokatzen da. Bihar Sakanako Xake Txapelketa jokatuko da Arruazun eta, igandean, Sakanako Herri Kirol Jardunaldia hartuko du Bakaikuk.

MOTZEAN

Arruazuk hartuko du Sakanako Xake Txapelketa

Bihar, larunbatean, Arruazuko herriaren etxean, 10:00etatik aurrera

Arruazuko herriaren etxeak Sakanako Xake Txapelketa hartuko du bihar, goizeko 10:00etatik aurrera. Txapelketa Mank-ek antolatu du, Zaldi Beltza Xake Taldearen eta Arruazuko Udalaren laguntzarekin. Sakanako Xake Txapelketa, aldi berean, 1.900 ELO puntutik beherako Nafarroako Txapelketa izango da.

Txapelketan parte hartzeko egunean bertan eman daiteke izena, 9:30etik aurrera (prezioa: 5 euro). Lehendabiziko hirurek saria jasoko dute, helduen eta gazteen mailan.

Herri kirolari sakandarren urte bukaerako festa

Sakanako Herri Kirol Jardunaldia hartuko du igandean Bakaikuko frontoiak, 12:00etan

Aurten Bakaikuk hartuko du Mank-ek antolatutako Sakanako Herri Kirol Jardunaldia, urte bukaerako festa. Sakanako Aizkora Eskolako aizkolariak, Sakanako aizkolariak, Sakanako Harri Jasotze Eskolako kirolariak, Sakanako trontzalariak eta tiratzaileak ariko dira.

Bukaeran omenaldia egingo zaie Sakanan aizkora sustatu duten aizkolariei: aurten zendutako Jose Ignazio "Axio" Floresi, eta oraindik ere irakasle lanetan jarraitzen duten eta tartean egurrak erdibitzera animatzen diren Juan Mari Nazabal, Juanito Erdozia, Manolo Gorriti eta Jaime Gorriti aizkolariei.

Futbola

235 futbolari Altsasun

Aurten 235 futbolari daude izena emanda Sociedad Deportiva Alsasuan. Aurrebenjaminetatik hasita erregional mailara bitartean, guztira 15 talde dira. Astelehenean 2014-2015 denboraldiko aurkezpena egin zuten Dantzalekun. Kimuak Sakanako Kimuen Futbol Jardunaldietan lehiatzen dira, haurren eta kadeteen mailakoak Nafar Kirol Jolasetan eta jubenilak eta erregional mailakoak Futbol Federazioko txapelketetan.

Txirrindularitza-BTT

Urtasun Japoniara eta Zabalo Norvegiara

Pablo Urtasun.

Xabier Zabalo.

Team Ukyon ariko da Pablo Urtasun eta Sepura-Toyota BTT taldean Xabier Zabalo

Pablo Urtasunek 2014an ezin izan du lehiatzen aritu, Euskaltel-Euskadi taldearen desagerpenarengatik eta PinoRoad talde txiletarrarekin izandako arazoengatik, baina hala ere entrenatzen jarraitu du eta ahaleginak fruitua izan du, 2015rako egitasmo berria baitu: Team Ukyo talde kontinental profesionalean ariko da.

Urtasunen egutegi asiarra

Urtasunek Oscar Pujol eta Salvador Guardiola izango ditu taldekide, hainbat txirrindulari japoniarrekin batera, eta proba gehienak Asian jokatuko dituzte. Europan, aurten, Portugaleko Voltan eta Ordiziako Klasikoan aritu zen talde japoniarra, eta ikusteko dago 2015ean errepikatuko ote duten. Urtasun proiektu berriarekin kontentu dago, eta Japonian emango du 2015eko tarte luze bat.

Zabalo Eskandinavian

Xabier Zabalo olaztiarra aurten hasi zen Sepura BTT talde norvegiarrean, baina berriki 2005erako akordioa sinatu du. Sepura Toyota Racing with Birk taldeak Eskandinaviako probatan parte hartuko du baita Europa eta Munduko Kopako hainbat probatan. Helburua BTT taldeen artean erreferente izatea eta 2015ean emaitza onak lortzea da. Horretarako Zabalok goi mailako bikerrak izango ditu taldekide.

Zabalo 2010etik 2012ra Orbea taldean aritu zen, eta gero talderik gabe geratu zen. Orduan, Norvegiara joan zen eta BTTra edo mendi txirrindularitzara egin zuen salto. 2013an XXL Sport & Villmark Team BTT taldean aritu zen eta aurten Sepura taldera egin du jauzi.

Mendi lasterketak

Martiarena, helmugara bidean.

Iñaki Martiarena hirugarrena Eretza igoeran

147 korrikalarien artean hirugarrena sailkatu zen uhartearra

Azaroaren 30ean Sodupen jokatutako 7. Eretza Igoera 147 korrikalarik osatu zuten (14,4 km, 800 metroko desnibela). Aitor Prieto izan zen azkarrena (1:10:45). Iñaki Martiarena uhartearrak primerako lana egin zuen eta hirugarrena sailkatu zen (1:12:21).

Pala

IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketako 3. jardunaldia jokoan

Guztira 26 bikotek eman dute izena IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketan. Asteburuan hasierako ligaxkako 3. jardunaldia jokatuko da. Partidak Etxarri Aranazko eta Altsasuko pilotalekuetan jokatuko dira, ostiraletan, larunbatetan eta igandetan.

3.jardunaldia

Benjaminak:
Julene-Olaia / Miren-Maialen
Miren-Maialen / Maria-Ane
Kimuak:
Elorri-Ane / Naroa-Izaro
Elorri-Ane / Maddi-Irantzu
Haurrak:
Uxue-Ainhoa / Maitane-Dinora
Elai-Luzia / Saioa-Amaiur
Kadeteak:
Eider-Ikerne / Irati-Aroa
Irati-Aroa / Oihane-Naroa
Helduen 2. maila:
Uxue-Uxue / Ariane-Andrea
Ane-Irati / Garazi-Irati
Lopez de Luzuriaga-Suarez / Ane-Igoa
Andrea-Izar / Irati-Leire
Helduen 1. maila
Amaia-Nagore / Maite-Saioa
Ainhoa-Maddi / Yanira-Rebeka

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

12. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 4 – BETI KOZKOR 0
Azkenean garaipen ederra ospatzeko aukera izan zuten lakuntzarrek. Hasieratik dominatu zuen Lagun Arteak. Arkaitzek(2), Bakaikoak eta Anderrek sartu zituzten golak.

Sailkapena >>

1. Mendi .....**28 p**
12. Lagun Artea .....**12 p**

Asteburuko jardunaldia

LAGUNAK – LAGUN ARTEA
(Larunbatean, 16:00etan, Barañainen)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

13. JARDUNALDIA

MUTILBERA 0 – ETXARRI ARANATZ 3
ALTSASU 2 – MENDILLORRI 1
Gauzek bikain jarraitzen dute erregional mailan. Etxarri liderrak Mutilbera taldeari 0-3 irabazi zion partida lehiatuan, Gentzak eta Xabatek (2) sartutako golei esker. Bestalde, Altsasuk garaipen garrantzitsua lortu zuen Mendillorriren kontra. Javi Fernandezek Altsasu aurreratu zuen, eta nahiz eta Mendillorrik berdindu, Reparazek garaipenaren gola sartu zuen. Igandean derbya jokatuko dute Etxarri liderrak eta Altsasuk.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz .....**31 p**
7. Altsasu .....**21 p**

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ – ALTSASU
(Igandean, 15:30ean, Etxarri Aranatzen)

Saskibaloia

Saskibaloi Topaketa igandean Altsasun

Mank-ek Sakanako II. Saskibaloi Topaketak antolatu ditu. Bertan premini mailako taldeak dabiltza (8-10 urte). Topaketen laugarren jardunaldia Altsasuko Zelandi kiroldegiak hartuko du, igandean, 11:00etan.

Futbola

Kimuen Futbol 8 Topaketak aurrera

Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketetako 7. jardunaldia jokatuko da igandean Altsasuko Dantzalekun.

7. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun
10:30ean: Lagun Artea – Urdiain
11:30ean: Mediolanum – Tipi Tapa
11:30ean: Arbizu – Kaixo
12:30ean: Sayas – Dantzaleku
12:30ean: Txartel – Sutegi

Pilota

Iñigo Aritza Pilota Txapelketa aurrera

Igandean, 18:00etan, Olaztin

Kategoria batzuetan finalerdiak jokatuko dira eta beste batzuetan ligaxkako 5. jardunaldiko partidak.

Igandeko partidak

Igandean, 18:00etan, Olaztin
LH4: Finalerdia: Iker Agudelo – Aimar Gracia
LH5: Finalerdiak:
Jon Navarro – Araitz San Roman
Lander Peral – Ander Goikoetxea
LH6: Finalerdiak:
Aritz Ulaiar – Ekhi Olabide
Angel Vergara – Oier Gastesi
DH1: Finalerdia:
Aimar Garcia – Oier Berastegi
DBH2: Ligaxka:
Peru Galartza – Beñat Aldasoro
Urko Gartzia – Haritz Goikoetxea
DBH4: Ligaxka:
Gorka Ansa – Iñaki Bengoetxea
Manex Goikoetxea - Gorka Ansa

Areto futbola

Julen Luis arbizuarrak Magnan debutatu du

Hurrengo bi jardunalditan lehen 8 postuetan mantendu beharko da Magna Kopa jokatu ahal izateko

Prone Lugoren kontrako partida garrantzitsuan, 15. minuturako Roberto Martil irurtzundarrak Lugokoen atea zulatu zuen. Carlitosek irurtzundarren aldeko bigarren gola sartu zuen 3 minutura. Dani Saldisek, Eseverrik, Marc Tolrák, Carlitosek (2) eta Iago Rodriguezek sartutako golei esker, 3-8 irabazi zuen Irurtzungo taldeak.

Pozik zegoen Imanol Arregi. "Taldeak etxeko lanak egin ditu Lugon, baina oraindik ez dugu Koparako txartela lortu eta, horretarako, lanean jarraitu behar dugu" azaldu zuen entrenatzaileak.

2 partida erabakigarri

Inter Movistar da liderra (35 puntu). Magna Nafarroa Xota 8.a da (20 puntu), Kopa jokatzeko postuetan.

Luisen debuta

Lugoren kontrako partidan Julen Luis arbizuarrak debutatu zuen Magnarekin. Julenek Xotako filialean jokatzen du, Gurpea Xotan, baina azkenaldian Magnarekin entrenatu du. Denboraldi honetan debutatzen duen harrobiko lehen jokalaria da Julen, eta lan polita egin zuen.

Gaur, Magnak, sailkapenean 15.a den Uruguay Tenerife taldea hartuko du, 20:30ean, Anaitasuna Pabilioian. Kopara sailkatzeko 3 puntuak etxean geratu beharko dira. Hurrengo jardunaldian Jaenen kontra aritu beharko da Magna.

Atletismoa

Etxeberria eta Calvillo azkarrenak Alberto Barricarte memorialean

Izaskun Beunza, erdian. TESTUA ETA ARGAZKIAK: EÑAUT AGIRREBENGOA.

Arabatik eta Gipuzkoatik korrikalari ugari hurbildu ziren.

Javi Moreno eta Izaskun Beunza izan ziren lehen sakandarrak eta Sakanako Atletismo Kopa irabazi dute

Astelehen goizean jokatu zen Zubeztia elkarteak antolaturiko herri lasterketaren 34. edizioa, 31.a lasterketak Alberto Barricarte memoriala izena hartu zuenetik. Giro hotz eta desatsegina eginagatik ere, jende ugari animatu zen Altsasuko kaleetan zehar korrika egitera. Guztira 216 parte-hartzaile izan ziren, iragan urtean baino hiru gutxiago. Azkarrenak Antonio Etxeberria iruindarra eta Elena Calvillo beasaindarra izan ziren.

Goizeko 11:30ean hasi zen lasterketa. Korrikalariek lau bira eman behar izan zizkioten herri barruan antolaturiko 3,1 km-ko zirkuituari, guztira 12,4 km eginez. Erritmoa bizi bizia izan zen hasiera lerrotik bertatik, eta tarteak berehala sortu ziren. Gauzak horrela, lehenengo biraren ostean Antonio Etxeberria bakarrik geratu zen, eta horrelaxe egin zuen helmugara bitarteko gainontzeko bidea korrikalari ezagunak. 40 minutu eta 52 segundo behar izan zituen zirkuituari lau birak emateko. Bigarren postuan Julen Basterretxea sailkatu zen (41:44), minutu bat baino gutxiagora, eta podiuma Imanol Gonzalezek osatu zuen (41:56).

Emakumeen kategorian ere ez zen alde handiegirik izan. Helmugaratzen lehena mendiko lasterketetan ibili ohi den Elena Calvillo izan zen, ibilbidea osatzeko 50 minutu eta 22 segundo behar izan zituelarik. Bigarrena Izaskun Beunza olaztiarra izan zen, 51 minutu eta 11 segundoko denborarekin, eta hirugarrena Arantzazu Perez de Arenaza, bigarrenarengandik minutu erdira.

Sakanako atletismo kopan Moreno eta Beunza garaile

Gizonezko sakandar onena Javi Moreno altsasuarra izan zen (42:43), helmugan 6.a, Sergio Garcia de Eulateren (10.a, 43:43) eta Javier Borregaren (11.a, 44:09) aurretik. Emakumezko sakandarren artean onena Izaskun Beunza izan zen (2.a, 51:11). Honen ostean azkarrenak Haizea Ramirez de Alda (14.a, 1:02:24) eta Mari Jose Arza (15.a, 1:02:24) izan ziren.

Moreno eta Beunzak irabazi dute Sakanako X. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak saria. Barricarte memoriala zen kopa honetako azken lasterketa, eta astelehenean lortutako postuari esker garaipena berrestea lortu zuten.

Sakandarrak Zubeztiako 34. herri lasterketa-31. Alberto Barricarte Memorialean:

1.	Antonio Etxeberria	40:52
6.	Javi Moreno	42:43
10.	Sergio Garcia de Eulate	43:43
11.	Javier Borrega	44:09
15.	Fco. Javier Gomez	44:20
19.	Aritz Pellejero	44:46
26.	Javier Erice	45:16
31.	Adur Senar	45:36
32.	Andoni Azanza	45:39
33.	Anartz Etxeberria	45:52
40.	Mikel Berdud	46:42
47.	Isidro Asurabarrena	47:27
49.	Jose Javier Maiza	47:54
52.	Iban Gonzalez	48:11
53.	Mikel Lakuntza	48:11
54.	Juan Carlos gomez	48:11
56.	Aitor Hernaiz	48:13
66.	Jose Ramon Ramirez	49:08
68.	Fernando Ganuza	49:15
69.	Juantxo Azurmendi	49:18
73.	Asier Pellejero	49:48
89.	Martin Somocurcio	51:07
90.	Izaskun Beunza	51:11
91.	Iraitz Senar	51:11
93.	Gorka Perianez	51:18
154.	Juan Carlos Villalobos	52:24
119.	Xabier Aierdi	53:05
121.	Iñaki Alvaro	53:14
134.	Erkuden San Martin	54:40
135.	Aingeru Azazeta	54:54
138.	Esteban Tejedor	55:24
142.	Eduardo Zuñiga	55:43
144.	Ruben Cantero	55:48
150.	Fernando Marijuan	56:31
151.	Aritz Etxeberria	56:31
152.	Iñaki Otxoa de Eribe	56:31
153.	Iñigo Beperet	56:31
158.	Alberto Agirre	56:49
164.	Maite Zabaleta	57:52
165.	Jose Javier Maiza	57:52
169.	Aitor Salinas	58:03
172.	Ismael Lpz. de Goikoetxea	58:12
176.	Alfonso Mateu	59:29
187.	Haizea Ramirez de Alda	1:02:24
188.	Mari Jose Arza	1:02:24
189.	Jose Maria Mercero	1:02:30
190.	Isabel Pozueta	1:02:30
193.	Patxi Atxa	1:03:09
207.	Javi Rivero	1:09:57
215.	Koldo Mendiluze	1:18:27
216.	Xabier Ramirez de Alda	1:18:27

bazkide GALDETEGIA

1. Beleixeguaixe txartela Sakanako komertzioetan erabiltzen duzu?
☐ BAI ☐ EZ

1.1. Ez baduzu erabiltzen zergatik?
☐ Ez zait interesgarri iruditzen.
☐ Deskontu gutxi daude.
☐ Deskontuak ez dira erakargarriak.
☐ Lotsagatik.
☐ Beste arrazoiak:

2. Badakizu non erabil dezakezun?
☐ BAI ☐ EZ

2.2. Baiezkoa bada, nola jakin duzu?
☐ Web orriaren bidez.
☐ Etxean jasotako desplegablearen bidez.
☐ Guaixen argitaratzen den zutabearen bidez.
☐ Establezimenduetako kartelen bidez.
☐ Besterik:

2.3. Ezezkoa bada, zergatik?

3. Erabiltzen baduzu zein maiztasunarekin?
☐ Astero.
☐ Hilabetero.
☐ Urtean zehar askotan.
☐ Daukadanetik behin soilik.
☐ Gogoratzen naizenean.
☐ Dendariak oroitarazten didanean.

4. Erabilpena nola hobetuko zenuke?

5. Zer du faltan txartelak?

6. Zure inguruan beste norbait bazkide al da?
☐ BAI ☐ EZ

6.1. Baiezkoa bada: Norbaiti entzun diozu zerbait txartelaren inguruan?

7. Txartelaren inguruan Interneten komunitate bat sortu beharra sumatzen duzu?
☐ Bai ☐ Ez

Zergatik?

Bota postontzira >>

Olaztiko, Etxarri Aranazko, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Altsasuko (Iortia) liburutegietan.
Guaixeren bulegoan: Foru plaza 23-1 Altsasu

<< edo bete online galdetegia!

kultura >>

Jendearen bultzadarekin hasi dira Euskal Ekitaldiak

Gaur, 20:00etan Irurtzungo Iratxo elkartean segida izanen dute. Arkaitz Astiazaranek Euskal Herrian barna bizikletan egindako ibilbidea iruditan ezagutzeko aukera izanen da

Abenduaren 3ko Nafarroaren eta Euskararen Eguneko hitzorduari hutsik egin gabe hasi ziren Aizpea euskaltzaleon topaguneak antolatutako Euskal Ekitaldiak. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen ikuskizun berriak 1.500 pertsona erakarri zituen. Hiru egun geroago, Pasaian dagoen Ondartxo ontziolara joateko irteera antolatu zuten. San Juan baleontziak ere irurtzundarren jakin-mina piztu zuen. Autobusa bete eta beste hiru autotan joan behar izan zuten batzuk, guztira 62 pertsona. Ezagutza nahia ederki asetu zuten. Pena bakarra egun euritsua izan zela, udan bueltatzea pentsatzen hasiak dira.

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen emanaldia oso arrakastatsua izan zen.

Euskal Ekitaldiek ez dute etenik eta, gaur, Arkaitz Aztiazaranen *Euskal Herriko altxorren barrena* dokumentala ikusteko aukera izanen da. Astiazaranek 2013ko udaberrian Euskal Herrian barna 4.400 km ibili zituen bizikletan. 37 etapatan 800 herri eta 175 mendate pasa zituen. Motxilan bideo-kamera eraman zuen eta hartu zituen irudiak dira gaur eskainiko dituenak. Emanaldiak "Euskal Herrian bertan irteera planak egiteko gonbitea izan nahi luke, etxetik pauso batera askotan konturatzen ez garen altxor paregabeak baititugu", adierazi du Astiazaranek.

Literatur hitzordua

Heldu den asteazkenean Ernesto Prat Urzainkik *Orpoz orpo* (Txalaparta, 2014) liburuaren aurkeztuko du. 18:30ean izanen da, Irurtzungo liburutegian. Antolatzaileek liburua irakurrita joateko gonbitea luzatu dute. Pratek sasian zegoela ekin zion klandestinitatea, sexua eta umorea nahasten dituen kontakizun "pitoa" idazteari.

Protagonistak, Karlosek, ihesari ekin behar dio Guardia Zibilak herrian egindako atxiloketa batzuk direla eta. Nafarroan hasi eta Euskal Herritik oso urrun bukatuko den alde-egite eroan, aberriaren edo sozialismoaren militante baino sexuaren militante den Karlosek inguruan dauzkan guztiak dantzan jarriko ditu: laguntza emanen dioten kideak, poliziak, Erakundea... Hala, bada, estutzen doan bidean, iheslariak orpoz orpo izanen ditu poliziak, atxiloketa, espetxea, heriotza eta erlojua.

Euskal Ekitaldietako beste hitzorduak

Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. Abenduaren 20an, larunbatean, 21:30ean Iratxo elkartean bertso afaria. 15 €. Ikasleak eta langabetuak 10.

Euskarak 365 egun lip-duba. Abenduaren 21ean, igandean, 10:00etan.

Lip-duba, ITB eta Gure Esku Dago. Abenduaren 29an, astelehenean, 18:30ean eta 19:00etan kultur etxean.

bazterretik

Aurkene Ormazabal

Abenduak 13 Santa Luzia, jostunen patroia

Orain dela hamarkada bat jostea, bordatzea eta trikotatzea gure amonen lana baziren ere, azken urteotan gizarte mugimendu batean bihurtu dira.

Oroitzen naiz nire amonak gurutze puntuzko koadro bat zeukala, bertan bi dantzari agertzen ziren, ama alabari dantza klasikoa erakusten... Oroitzen naiz nire izebak puntuz egindako jertse berde bat oparitu zidala.... Oroitzen naiz nire amak egiten zizkidan mozorro guztiekin, izarrez, estralurtarrez, txanogorritsuz... Segur aski, nik dauzkadan irudi hauek, askok edukiko dituzuela, bai amarekin, izebarekin edo amonarekin.

Bazirudien horrelako irudiak galtzen ari ginela, baina pixkanaka-pixkanaka krisialdia, beharra eta telebista saio desberdinak direla eta, berreskuratzen ari gara gure gizartean.

Telebistaren indarrari esker, azken bi urte hauetan bi telesaio egon dira josteko makinen salmentak nabarmenki igo dituztenak, josteko makinen konpontzeko tailerrak gainezka utzi dituztenak eta josteko ikastaroak ugaritu dituztenak. *Velvet* eta *El tiempo entre costuras* dira mugimendu honen errudunak, bitan, protagonistek modarekin daukaten lotura erakusten dute. *El tiempo entre costuras* María Dueñasen liburuan oinarrituta dago eta bertan Sira Quiroga protagonistak Madril uzten du Gerra Zibila hasi aurretik eta Tetuanen finkatzen da, non bere goi mailako joskintza tailer bat jartzen duen.

Krisialdia eta beharrak izugarrizko eragina izaten ari dira eta "*do it yourself*" (zure moda pertsonala egitea) edota "*hand made*"-ak modan daudela esan dezakegu. Duela gutxi arte, ematen zuen errazagoa zela dendara joan eta erostea, baina, egun, krisialdia iristean, "*diy*" mugimendua berreskuratzen ari gara, aurrezteko eta birziklatzeko. Mugimendu berritzaile hau kultura punk-ak jarri zuen martxan, kapitalismoaren aurka borrokatzeko haien arropa propioa pertsonalizatzen eta bereak egiten hasi baitziren. Gaur, Interneten laguntzarekin edo gure amonen laguntzarekin guk egindako moda lortu ahal dugu.

Puntua egiteko "*We are knitters*", "*Knittingpoint*" eta "*Knittingnoodles*" web-orrialdeak gomendatzen ditut. Bertan patroiak, denda eta tutoretzak aurki ditzakegu, horrela, negu honetarako jertseak, bufandak, txanoak... egitea errazagoa izango zaigu. Josteko berriz, joskintza tailerretara joo dezakegu, baina nik AEBtik ekarritako ideia bat proposatzen dut. "*CafeCouture*"-etaz ari naiz, bertan kafe bat hartzen duzun bitartean josteko makina bat alokatu ahal duzu eta bertakoek zalantza guztiekin lagundu zaitzakete. Izan ere, ez dugu New Yorkeraino joan beharrik kafetegi hauetaz gozatzeko, estatu mailako lehendabizikoa "*TetéCaféCostura*" madrildarra izan zen, baina, gertuago, Iruñan "*CaféCostura*" eta Bilbon "*Café con dedal*" dauzkagu.

Eta zu, animatzen zara d.i.y-ekin?

Eguberri sukaldaritza ikastaroa Irurtzunen

10 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago eta Gazte Txokoan izena emateko epea hilaren 15ean despeditzen da

Aaron Ortiz Garzia sukaldariak Irurtzungo Udalarekin batera antolatu du ikastaroa. Abenduaren 22an edo 29an izanen da ikastaroa. Txanda bakoitzean 20 parte-hartzaile aritu daitezke eta egun batean ari denak hurrengoan ezin izanen du errepikatu. Interesatuek 2 euro ordaindu beharko dituzte, elikagaiak erosteko bideratuko direnak (zeliakoendako egokia). Eguberri-sukaldaritza ikastaroa Iratxo Elkartean eginen da.

Harriak protagonista dituen dokumentala

Nafarroako elezaharrarekiko harriak dokumentala sortu dute Pyrene ekoiztetxeak eta Nafarroako Museo Etnologikoak. Zabalkunde etnografikorako lan berri horretan harrizko zenbait osagai eraikitzeari lotutako herri kontakizunak jaso dira, asko historiaurrekoak, eta arkitektura horiei eta morfologia bitxia edo azalpen zaila duten eraketa naturalei lotutako pertsonaia mitikoak. Era berean, Nafarroan orain dik ere harriei lotuta egiten diren erritu batzuk azaltzen dira.

Kontakizunak Nafarroako geografia osoko hainbat lekutatik ibilbidea egiten du. Sakana ere agertzen da, esaterako: Aralarko santutegia, Ata iruinarria (Erroldanen harria) edota Urdiaingo Jentilen leihoa. Eugenio Monesmak idatzi du gidoia eta dokumentala zuzendu, Susana Irigarairen laguntzaz. Joan den ostegunean Nafarroako Filmotekan ikusteko aukera izan zen.

Elkarlan zabala Haize Berriak bandaren abenduko kontzerturako

Abenduaren 20an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko Burunda pilotalekuan 70 musikari eta 100 haur kantari ariko dira, Felix Linaresek aurkeztuta

Dagoeneko hainbat sarrera salduak daude emanaldirako. John Williansek konposatutako soinu bandekin osatutako egitaraua izanen da entzungai. Hura interpretatzeaz Zumarragako eta Haize Berriak bandak arduratuko dira. Haiekin batera, Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Altsasuko musika eskoletako haur kantariak, Amaia Razkin biolin bakarlaria eta Jasone Etxebeste klarinete bakarlaria ariko dira. Guztiak Luis Orduña zuzendariaren esanetara.

Trasteandoren abenduko bira

Dozena bat musikari altsasuarrek osatzen dute Trasteando taldea eta abenduan lanpetuta ibiliko dira. Aisiarako bitarteko dute musika Trasteandokoek, baita elkartasuna adierazteko modu gisa. Hilaren 27an emanaldi bikoitza eskainiz despedituko dute bira Altsasuko Iortia kultur gunean. Sarreren salmenta aurreratua dagoela jakinarazi digute. Kontzertuan jasotako dirua Nafarroako Elikagai Bankuarendako izanen da.

Baina beste hiru emanaldi ere baditu taldeak abenduan. Trasteando taldeko kideak bihar, 20:00etan, Zizur Nagusiko kultur etxean ariko dira. Elkartasun emanaldia izanen da eta sarreretako dirua Madre Coraje garapenerako gobernuz kanpoko erakundearendako izanen da (Peru, Mozanbike eta Espainian lan egiten du). Ondoren, Altsasuko Josefina Arregi klinikako eta Aita Barandiaran adinduen egoitzako emanaldiak etorriko dira.

Estangaren hip-hop errimak

Ostiralean, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean

Oskar Estangak *Errimatuz, garenera arrimatuz* kantu proiektua aurkeztuko du gaur Olatzagutiko kultur gunean. Bertsolaria eta musikaria, Estangak bere emanaldian hitzak ditu oinarri, hip-hop doinuz ematen dituenak. Aldi berean eduki autobiografikoa eta unibertsala duten kantuak osatzen dute ikuskizuna, bat-batekoekin batera. Doinu-erak adierazpide aukera handia eman diote kantariari.

Gaintzakoak urteak daramatza kantagintzan eta ibilbide horren fruitu gaurko emanaldia da. Aurretik ere aritu izan da kantua ardatz zuten beste proiektuetan, baina estreinakoa du bakarka egiten duena. Ahotsa eta gitarrarekin ariko da. Baina atzetik musika oinarriak entzuteko aukera ere izanen da. Kantaldiak ere bakarrizketatik izanen du, Estangak kantuen gaien inguruan bere hausnarketak plazaratuko baititu, "bizitzan oinarrituta, garenera arrimatuz". Gaurko emanaldian Kris Medina eta Oihana Zaranz dantzariak ere ariko dira.

cederna garalur

HURBILEKO LANDA-MERKATARITZA PROIEKTUA

Hemen erosi, eguberrietan ere

Gobierno de Navarra

cederna garalur

ZONA MEDIA

Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 68%	euria: 43%	euria: 28%	euria: 89%	euria: 97%	euria: 93%
Min: 3 Max: 9	Min: 4 Max: 6	Min: 2 Max: 6	Min: 1 Max: 8	Min: 4 Max: 9	Min: 6 Max: 9	Min: 5 Max: 9

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	10	1	100
Etxarri A.	8.7	0	81.3
Altsasu	8.5	1	112.5
Aralar	4.2	-4	88.6
Urbasa	6	0	130.1

: ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
14	22	28	5